## Berangoko Udala

**Errenta maila txikia duten familia-unitate berangoztarrek Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ) eta zarama bilketa nahiz estoldagatiko tasak ordaintzeko laguntzen emakida arautzen duen Ordenantza.**

2013ko martxoaren 7an hasiera batez onartu zen Errenta maila txikia duten familia-unitate berangoztarrek Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ) eta zarama bilketa nahiz estoldagatiko tasak ordaintzeko laguntzen emakida arautzen duen Ordenantza. Eta ondoren, akordioa jendaurrean jarrita, ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu epe barruan; beraz, behin betiko onartutzat jotzen da, hala ezartzen baita Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluko c) idatz zatian. Horiek horrela, adierazten da aipatutako ordenantza indarrean sartuko dela Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea amaitu eta hurrengo egunean, betiere epe hori testu osoa «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen denetik zenbatuta.

Ordenantzaren behin betiko onartzearen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik 2 hilabeteko epearen barruan.

Behin betiko testua ondorengo hau da:

### ERRENTA MAILA TXIKIA DUTEN FAMILIA-UNITATEBERANGOZTARREK HIRI ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKOZERGA (OHZ) ETA ZARAMA BILKETA NAHIZESTOLDAGATIKO TASAK ORDAINTZEKOLAGUNTZAK EMATEKO ARAUAK

***1.* artikulua.—*Helburua***

Arau hauen bidez, arautu egin nahi da zein baldintzatan eta nola emango zaizkien familia unitateei ohiko etxebizitzaren Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ) eta zarama bilketa eta estolda zerbitzuengatiko tasak ordaintzeko diru laguntzak. Laguntzok jasotzeko, ondoko artikuluetan ezartzen diren baldintzak bete beharko dira.

***2.* artikulua.—*Laguntzak emateko irizpideak eta baldintzak***

Laguntza hauen xedea da errenta maila txikia izan eta krisi ekonomikoak ukitutako pertsonek eta familia unitateek, langabeek, pentsiodunek, LGS, SBE eta antzekoak... jasotzen dutenek udal zergak ordaintzen laguntzea, pertsona eta familia horiek gizartean baztertuta geratzeko arriskurik izan ez dezaten.

2.1. Finantza daitezkeen kontzeptuak: Hona hemen finantza daitezkeen kontzeptuak:

1. Ondasun Higiezinen gaineko Zerga; gehienez ere, dagokion zenbatekoaren %75.

2. Zarama bilketa eta estolderiagatiko tasak; gehienez ere, urteko ordainagirien %50.

Artikulu honetako 1. eta 2. kontzeptuak bateragarriak dira, eta hortaz, kontzeptu biengatik eska liteke laguntza.

2.2. Hartzaileak: Pertsona eta familia unitate onuradunek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Berangon erroldatuta egotea: eskatzaileek, diru laguntza eskatzen duten unean, gutxienez 12 hilabeteko antzinatasuna izan beharko dute erroldan.

b) Egoera hauetako batean sartuta egotea:

— Langabezia.
— Gizarte Segurantzako edozein erregimenetako pentsioduna izatea.
— Lanean egotea, lanbidearteko gutxieneko soldataren adinako errentak jasota.
— Sarrerak Bermatzeko Errentaren jasotzaileak.
— Oro har, nahikoa diru baliabide dutenek ezin izango dute eskatu.

## Ayuntamiento de Berango

**Ordenanza reguladora de la concesión de ayudas para el abono del Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza urbana (I.B.I.) y las tasas de recogida de basura y alcantarillado dirigidas a unidades familiares de Berango con niveles bajos de renta.**

No habiéndose presentado reclamación alguna dentro del plazo de exposición al público del acuerdo de aprobación inicial, de fecha 7 de marzo de 2.013, de la Ordenanza reguladora de la concesión de ayudas para el abono del Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza urbana (I.B.I.) y las Tasas de recogida de basura y alcantarillado dirigidas a unidades familiares de Berango con niveles bajos de renta, dicho acuerdo queda elevado a definitivo de conformidad con lo dispuesto en el Artículo 49, letra c), de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local,, significando que la aprobación de esta Ordenanza entrará en vigor el día siguiente a aquel en que termine el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, contado desde la publicación de su texto completo en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Contra la aprobación definitiva de la Ordenanza podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de 2 meses contados a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio.

El texto íntegro definitivo es el siguiente:

### NORMATIVA PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS PARA EL ABONO DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES DE NATURALEZA URBANA (I.B.I.) Y LAS TASAS DE RECOGIDA DE BASURA Y ALCANTARILLADO DIRIGIDAS A UNIDADES FAMILIARES DE BERANGO CON NIVELES BAJOS DE RENTA

**Artículo 1.—*Objeto***

Las presentes Normas tienen por objeto regular la concesión de ayudas económicas para el abono del recibo del Impuesto sobre los Bienes Inmuebles de naturaleza urbana (I.B.I.) exclusivamente por uso residencial (vivienda habitual), y para el pago de las Tasas por recogida de basuras y alcantarillado, a las unidades familiares que cumplan las condiciones que se establecen en los siguientes artículos.

**Artículo 2.—*Criterios y condiciones para la concesión de las ayudas***

Estas ayudas irán dirigidas a sufragar los gastos de las obligaciones tributarias municipales de las personas y unidades familiares afectadas por la situación de crisis económica, desempleados, pensionistas, perceptores del S.M.I., R.G.I., y análogos, que tengan bajo nivel de renta, y con la finalidad de evitar peligros de exclusión social.

2.1. Conceptos financiables: Serán financiables los siguientes conceptos:

1. El Impuesto sobre Bienes Inmuebles, hasta un máximo del 75% del mismo.

2. Las Tasas de recogida de Basuras y Alcantarillado hasta un importe máximo del 50% de los recibos anuales.

Podrá solicitarse la ayuda por los conceptos 1 y 2 de este artículo, sin que sean excluyentes.

2.2. Destinatarios: Las personas y unidades familiares beneficiarias deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Estar empadronado en el municipio de Berango con una antigüedad no inferior a 12 meses en el momento de solicitar la ayuda económica.

b) Hallarse en alguna de estas situaciones:

— Desempleo.
— Ser pensionista de cualquiera de los regímenes de la Seguridad Social.
— Estar en activo con unas rentas equivalentes al Salario Mínimo Interprofesional.
— Perceptores de la Renta de Garantía de Ingresos.
— Con carácter general, no contar con recursos económicos suficientes.

cve: BAO-BOB-2013a082

Baldin eta familia unitatearen diru sarrera guztien baturak oinarri hauetako 6. artikuluan ezarritako mugak gainditzen baditu, inola ere ez da eskatutako prestaziorik emango.

c) Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren eta zarama bilketa eta estalderiagatiko tasen zergaduna izatea, bai etxebizitzaren jabea izateagatik, bai maizterra izateagatik, betiere errentamendu kontratuan zarama bilketa eta estalderiagatiko tasak maizterrak ordaindu beharra ezartzen bada.

Etxebizitza irabazpidezko ondasuna bada, baldintzak betetzen dituen edozein ezkontidek eskatu ahal izango du laguntza, zergaren udal erroldako ordainagiriaren titularra izan ez arren. Eta, halakoetan, diruz lagunduko da ordaindu behar denaren zati proportzionala.

Era berean, etxebizitza berean maizter bat baino gehiago dagoenean, eskatzaileak ordaindu behar duen zati proportzionalari egokituko zaio diru laguntza.

d) Diru laguntza eskatzen zaion higiezinaz beste higiezin baten jabea ez izatea. Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko ez trastelekua ez eskariaren xede den etxebizitzaren eraikin berean dagoen ibilgailu garajea.

e) Familia unitatearen gehienezko ondare erabilgarriak (dirua, tituluak, aseguruak, baloreak, ibilgailuak edo beste jabetza batzuk) ezingo du izan legokiokeen diru sarrerak bermatzeko errentaren urteko gehienezko zenbatekoaren lau halakotik gorakoa, hau da:

— Kide bat: 29.395,68.
— Bi kide: 37.746,72.
— Hiru kide edo gehiago: 41.755,68.

f) Laguntza eskarian agertutako helbidean benetan bizitzea. Helbide horrek bat egin beharko du laguntzaren xede diren ordainagirietan agertzen denarekin.

g) Kontzeptu berberengatik eta epe berean diru laguntzak jasota ez izatea.

Etxebizitzan benetan bizi diren pertsonen multzoa familia unitatetzat joko da. Egoera hori biztanleen udal erroldaren egiaztagiriaren bidez ziurtatuko da.

### *3.* artikulua.—*Bateragarritasuna*

3.1. Beste erakunde batzuek helburu berberarekin emandako laguntzak ez dira bateragarriak orain arautzen diren hauekin.

3.2. Horretarako, kontzeptu berbererako eskatutako edo emandako laguntza guztien berri eman beharko dute interesatuek, eskaria egiten den unean bertan. Betebehar horrek bere hartan jarraituko du harik eta prozedura ebatzi arte.

### *4.* artikulua.—*Eskariak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa*

a) Eskariak aurkezteko epea: Eskariak azaroaren 15etik 30era bitartean aurkeztuko dira.

b) Eskariak aurkezteko lekua: Eskariak Berangoko Udalan aurkeztuko dira. Hori, hala ere, ez da eragozpen izango Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezartzen denerako.

Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu eskariak, edo oinarri hauen arabera eskatzekoa den dokumentazioa aurkezten ez bada, interesatuak 10 eguneko epea izango du hutsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, horrela egiten ez badu, eskarian atzera egin duela ulertuko dela, betiere ebazpena eman ondoren.

c) Eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Lanbide enplegu zerbitzuak emandako ziurtagiria: horren bidez egiaztatuko da, batetik, langabea edo SBEren jasotzailea dela, eta, bestetik, jasotzen dituen prestazioen zenbatekoa. Pentsioduna bada interesatua, berriz, Gizarte Segurantza, Muface edo horrelakoen erregimenetako batean sartuta dagoela egiaztatu beharko du, eskatzailearen eta familia unitateko gainerako kideen pentsioaren zenbatekoa zein den adierazita.

En ningún caso se concederá la prestación solicitada cuando la suma total de los ingresos de la unidad familiar supere los límites establecidos en el artículo 6 de las presentes bases.

c) Ser sujeto pasivo en el Impuesto de Bienes Inmuebles de Naturaleza Urbana, y en las Tasas de recogida de basura y alcantarillado, bien en calidad de propietario de la vivienda, bien en calidad de inquilino, siempre que en el contrato de arrendamiento se establezca el pago de las Tasas de recogida de basura y alcantarillado a cuenta del arrendatario.

Cuando la vivienda sea un bien ganancial podrá solicitar la ayuda cualquiera de los cónyuges que cumpla los requisitos, al margen del titular del recibo en el Padrón Municipal de Impuestos, siendo subvencionable en tal caso la parte proporcional de la obligación de pago.

Del mismo modo, cuando se trate de pluralidad de arrendatarios en la misma vivienda, la parte a subvencionar será la proporcional a la obligación de pago del solicitante.

d) No ser propietario de otro bien inmueble distinto de aquél para el que se solicita la ayuda, excluyéndose de este cómputo el local destinado a trastero y garaje para un vehículo que se encuentre ubicado en el mismo edificio de la vivienda objeto de la solicitud.

e) El patrimonio máximo disponible (dinero, títulos, seguros, valores, vehículos u otras propiedades) de la unidad familiar no puede ser superior a cuatro veces la cuantía anual máxima de la Renta de Garantía de Ingresos, (que le pudiera corresponder), esto es:

— Un miembro: 29.395,68.
— Dos miembros: 37.746,72.
— Tres ó más: 41.755,68.

f) Mantener residencia efectiva en el domicilio señalado en la solicitud de ayuda, y que ha de corresponder con el de los recibos girados objeto de la misma.

g) No haber recibido subvenciones por los mismos conceptos y en el mismo periodo.

Se entenderá por unidad familiar al conjunto de las personas que convivan efectivamente en el domicilio. Dicha situación se acreditará mediante el Padrón Municipal de habitantes.

### Artículo 3.—*Compatibilidad*

3.1. Estas ayudas no son compatibles con las otorgadas por otros organismos para la misma finalidad.

3.2. A estos efectos, los interesados deberán declarar todas las ayudas solicitadas y/o concedidas para el mismo concepto en el momento de presentar la solicitud. Dicha obligación subsistirá mientras no se haya resuelto el procedimiento.

### Artículo 4.—*Solicitudes y documentación a presentar*

a) Plazo de presentación de solicitudes: Las solicitudes se presentaran entre el 15 y el 30 de noviembre.

b) Lugar de presentación de solicitudes: La presentación de solicitudes se realizará en el Ayuntamiento de Berango, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común.

Cuando la solicitud no reúna los requisitos establecidos en el artículo 70 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o no se acompañe la documentación que de acuerdo con estas bases resulte exigible, se requerirá al interesado para que en el plazo de 10 días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciere, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución.

c) Documentación a presentar junto a la solicitud:

1. Certificado del Servicio de Empleo Lanbide que acredite situación de desempleado o perceptor del R.G.I. e importe de las prestaciones que percibe o acreditación de la condición de pensionista en cualquiera de los regímenes de la Seguridad Social, Muface, etc, con indicación del importe de la pensión del solicitante y del resto de los miembros de la unidad familiar.

cve: BAO-BOB-2013a082

2. Eskatzailearen eta familia unitateko gainerako kideen azken errenta-aitorpena; edo aitorpena aurkezteko beharrik ez duela egiaztatzen duen agiria.

3. Abian den urteko zarama bilketa eta estoldagatiko tasen ordainagirien fotokopia (otsail, maiatz, abuztu eta azaroko ordainagiriena) eta Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren ordainagiriaren fotokopia.

4. Laguntzaren onuradun gertatzekotan, laguntza kobratzeko kontu zenbakia. Araudi honen I. eranskinean jasotzen den hirugarrenaren fitxa bete beharko da.

5. Laguntza hauen xede diren tributuak ordaindu behar dituzten maizterren alokairu kontratuaren fotokopia. Kontratu horretan jasota agertuko dira maizterrak bere gain hartutako betebeharrak.

6. Familia unitateko kide guztien ondasunen egiaztagiriak, estatuko ogasunak eta foru ogasunak emanda.

7. Familia unitateko kide guztien ondasunen egiaztagiria, jatorri herrialdeak emanda, hala badagokio.

8. Familia unitateko kide guztiak identifikatzeko agirien fotokopia, hala badagokio.

9. Banantze epaia eta hitzarmen arau emailea.

10. Diruz lagundu beharreko aldiko nominen fotokopia, familia unitateko kide guztiei dagokiena.

11. Diruz lagundu beharreko aldiko lan bizitzaren egiaztagiria, familia unitateko kide guztiei dagokiena.

12. Diruz lagundu beharreko aldiko diru, titulu, aseguru, balore eta bestelako banku produktuen banku egiaztagiria, familia unitateko kide guztiei dagokiena.

13. Bidezkotzat jotzen den beste edozein dokumentazio osagarri.

Laguntzaren eskatzaileek eta familia unitateko gainerako kideek -diru sarrerak dituztenek- baimena eman beharko diote Berangoko Udalari beren gaitasun ekonomikoa zehaztu eta egiaztatzeko beharrezkoa den informazioa, dagokion erakundearen bidez, edozein administrazio publikori eskatzeko.

**5. artikulua.—*Diru laguntza emateko prozedura***

Berangoko Udaleko errentak eta ordainarazpen Sailak kontrastatu eta izapidetuko dituzte eskariak.

**6. artikulua.—*Balorazio irizpideak***

a) Familia unitatearen hileko diru sarrera garbiak: Eskatzaileari dagozkion diru sarreren %100 hartuko da aintzat, eta horri gehituko zaio familia unitateko gainerako kideen diru sarreren %50. Ondorio hauetarako, eskatzailetzat hartuko da familia unitatean diru sarrerarik handiena duen kidea.

Ordaindu behar dutenak familia unitateko kide bat baino gehiago badira, horien diru sarreren %100 hartuko da aintzat, eta horri gehituko zaio ordaindu beharrik ez duten gainerako kideen %50.

Berangoko Udaleko errentak eta ordainarazpen Sailak izango da organo instruktorea.

Diru laguntza emateko prozedurak bat egingo du Berangoko Udalak indarrean duen diru laguntza ordenantza orokorrarekin.

b) Familia unitateko kideen kopurua. Familien kide kopuruak eta diru sarrerak ezberdinak direnez batetik bestera, familiak ekitatez tratatzeko, kide kopuruaren araberako zuzengarri bat aplikatuko da. Ikusi taula:

| Kide kopurua | Zuzengarria | LGS-rekiko diru-sarrerak (14 hilekotan) |
|---|---|---|
| 1 | 1,20 | 769,87 |
| 2 | 1,30 | 833,82 |
| 3 | 1,40 | 897,96 |
| 4 | 1,50 | 962,10 |
| 5 | 1,60 | 1.026,24 |

2. Última declaración de la renta o certificación de no tener obligación de presentarla, del solicitante y del resto de los miembros de la unidad familiar.

3. Fotocopia de los recibos del pago de las Tasas de recogida de basura y alcantarillado del año en curso (meses de febrero, mayo, agosto y noviembre) y fotocopia del recibo de pago del Impuesto de Bienes Inmuebles.

4. Número de cuenta designada para el abono de la ayuda en caso de ser beneficiario de la misma. Se deberá rellenar ficha de tercero que figura en el anexo I.

5. Fotocopia del contrato de alquiler para los inquilinos obligados al pago de tributos en el que se indiquen las obligaciones contraídas objeto de estas ayudas.

6. Certificado de bienes de las haciendas estatal y foral de todos los miembros de la unidad familiar.

7. Certificación de bienes del país de origen, de todos los miembros de la unidad familiar, en su caso.

8. Fotocopia de los documentos identificativos, de todos los miembros de la unidad familiar, en su caso.

9. Sentencia y convenio regulador de la separación.

10. Fotocopia de las nóminas correspondientes al periodo a subvencionar, de todos los miembros de la unidad familiar.

11. Certificado de vida laboral, correspondiente al periodo a subvencionar, de todos los miembros de la unidad familiar.

12. Certificación bancaria de dinero, títulos, seguros, valores y otros productos bancarios, correspondientes al periodo a subvencionar, de todos los miembros de la unidad familiar.

13. Cualquier otra documentación complementaria que en su caso, se estime conveniente.

Los solicitantes de la ayuda y el resto de miembros de la unidad familiar con ingresos propios deberán autorizar al Ayuntamiento de Berango, para que, a través del organismo que corresponda, recabe de cualquier Administración Pública la información que sea necesaria para determinar y verificar la capacidad económica de los mismos.

**Artículo 5.—*Procedimiento de concesión***

Las solicitudes serán contrastadas y tramitadas por el Área de Rentas y Exacciones del Ayuntamiento de Berango.

**Artículo 6.—*Criterios de valoración***

a) Los ingresos netos mensuales de la unidad familiar: Se computará el 100% de los correspondientes a la persona solicitante más el 50% de los ingresos del resto de los miembros de la unidad familiar, entendiendo como solicitante al miembro de la unidad familiar que aporte el ingreso económico de mayor cuantía.

En el caso de que sean varios los miembros de la unidad familiar obligados al pago, se considerarán al 100% los ingresos de éstos, y el 50% del resto de miembros de la unidad familiar no obligados al pago.

El órgano instructor será el Área de Rentas y Exacciones del Ayuntamiento de Berango.

El procedimiento de subvención se ajustara a lo establecido en la ordenanza general de subvenciones vigente, del Ayuntamiento de Berango.

b) Tamaño de la unidad familiar. Para realizar un tratamiento equitativo de las familias en función de su tamaño, a los ingresos calculados, se aplicará un índice corrector en función del número de miembros atendiendo a la siguiente tabla:

| N.º de miembros | Índice corrector | Ingresos referencia SMI (referido a 14 mensualidades) |
|---|---|---|
| 1 | 1,20 | 769,87 |
| 2 | 1,30 | 833,82 |
| 3 | 1,40 | 897,96 |
| 4 | 1,50 | 962,10 |
| 5 | 1,60 | 1.026,24 |

cve: BAO-BOB-2013a082

Kide kopuruaren arabera erreferentziazko diru sarrerak gainditzen dituzten eskatzaileek ez dute laguntzarik jasotzeko eskubiderik izango.

**7. artikulua.—*Aurrekontua***

Programa honen bitartez deitutako laguntzen zenbatekoa eskari urteko udal aurrekontuan jasotzen den zenbatekoa izango da. Eta, OHZ laguntzak eta zarama bilketa eta estolderiagatiko tasen laguntzak ordaintzeko, dagozkion kontu sailak sortuko dira.

Baldin eta diru laguntza hartzeko eskubidea izanda eskatzen diren laguntzen zenbateko osoak aurrekontuetan jasotako zenbatekoa gainditzen badu, zuzengarri bat aplikatuko da, jaso eta onartutako eskari guztiei erantzun ahal izateko.

**8. artikulua.—*Laguntzak ukatzeko arrazoiak***

Osorik beteta ez dauden eskariak, gezurrezko eskariak edo datuen ezkutaketa arrazoia izango dira laguntza ukatzeko.

**9. artikulua.—*Eskariak ebaztea***

Alkatetzak emandako dekretu bidez ebatziko dira eskariak.

**10. artikulua.—*Ordainketa***

Organo eskudunak prozedura ebatzi ondoren, ordaindu egingo da laguntza, eta horretarako, diru sarrera egingo da onuradunak emandako kontu zenbakian.

AZKEN XEDAPENA

Testu osoa «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, hamaseigarren egun baliodunean sartuko da indarrean ordenantza hau.

Berangon, 2013ko apirilaren 22an.—Alkatea, María Isabel Landa Gaubeka

I. ERANSKINA

**HIRUGARRENAREN FITXA**

**Mugimendu mota**

☐ Berria.

☐ Aldaketa.

**Datu pertsonalak**

1. Izen abizenak ......................................................................
   ..........................................................................................
2. Kalea .............................................................................
   Zbkia. .............................................................................
   Herria .............................................................................
   Lurraldea .......................................................................
   Posta kodea ....................................................................
   Telefonoa .......................................................................
3. N.A.N./N.I.F .......................................................................

Sinadura

Data

**Banketxearen datuak**

Banketxea ............................................... Kodea ...........................
Bulegoa ............................................... Kodea .......................................
Kontu zbkia. ..................................................

Banketxearen sigilua

Data

(II-3067)

Los solicitantes con ingresos superiores a los de referencia según su número de miembros, no tendrán derecho a las ayudas.

**Artículo 7.—*Presupuesto***

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa ascenderá a la cantidad que figure en el Presupuesto Municipal del año correspondiente al año de solicitud, en las aplicaciones presupuestarias creadas al efecto para las ayudas al pago del I.B.I. y para las ayudas de Tasas de recogida de basura y alcantarillado.

En caso de que la cuantía total de las ayudas solicitadas con derecho a subvención sea superior a la cuantía asignada en presupuestos, se aplicará un coeficiente corrector con el fin de atender todas las solicitudes recibidas y aprobadas.

**Artículo 8.—*Causas de denegación***

Las solicitudes incompletas, falseadas o la ocultación de datos serán causa de denegación de la solicitud.

**Artículo 9.—*Resolución***

Las solicitudes se resolverán por Decreto de Alcaldía.

**Artículo 10.—*Pago***

Resuelto el procedimiento por el órgano competente se procederá al pago de la ayuda concedida y mediante ingreso en el número de cuenta facilitado por el beneficiario o beneficiaria.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor el decimosexto día hábil siguiente al de la publicación de su texto íntegro en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Berango, a 22 de abril de 2013.—La Alcaldesa, María Isabel Landa Gaubeka

ANEXO I

**FICHA DE TERCERO**

**Tipo de movimiento**

☐ Alta.

☐ Modificación.

**Datos personales**

1. Nombre y apellidos o razón social ..........................................
   ..........................................................................................
2. Calle .............................................................................
   N.º .................................................................................
   Población .......................................................................
   Provincia .......................................................................
   Código postal ..................................................................
   Teléfono .......................................................................
3. I.F.K./C.I.F. .......................................................................

Firma

Fecha

**Datos bancarios**

Banco ............................................. Código .........................
Sucursal .............................. Código .............................. Número de cuenta .............................................

Sello del Banco

Fecha

(II-3067)